

«Eusko Legebiltzarrak eskaini elkartasuna» eskertu du kurduen ordezkariak

Gasteizko Legebiltzarra bisitatu dute kurduen erbesteko Legebiltzarreko kide batzuek

Felix Iriarte/ Gasteiz

Abdula Ocalan PKK alderdiko lehendakariari heriotza zigorra ezarri dio Turkiak, eta horrek atzeratu egin du kurduen erbesteko Legebiltzarrak Euskal Herrian egin nahi zuen bilera. Hala ere, Gasteizera egindako bisitaldian, Yaser Kayak Parlamentuko lehendakariak Eusko Legebiltzarraren babesa eskertu zuen atzo.

OCALAN-EN bizia salbatzeari lehentasuna eman diote kurduak, eta, horregatik, bigarren mailan utziko dute erbesteko Parlamentuak Euskal Herrian egin nahi zuen bilera. Izan ere, bilera hori atzeratu egin dute, atzo Yaser Kayak berretsi zuenez.

«Ocalani ezarritako heriotza zigorrak aldatu ditu asmoak. Orain asko dugu egiteko, eta biltzarra egitea ez dago orain gure lehentasunen artean», adierazi zuen Gasteizko Legebiltzarrean, Juan Maria Atutxa Gasteizko Legebiltzarreko lehendakariarekin elkarrizketatu eta gero.

Kaya eta beste lau kide Legebiltzarrean izan ziren, eta Gasteizko aretoak eskaini dien elkartasuna eskertu zuen. Kayak gogora ekarri zuen kurduen egoera ez dela ona, duela hamabost urtetik hona gerran daudela euren eskubideak aldeztarren, eta



Juan Maria Atutxa Gasteizko Legebiltzarreko presidentea eta Yaser Kayak Kurdistango Parlamentuko presidentea.

egoera horretan laguntza guztiak asko estimatzen direla adierazi zuen.

«Askok eskertzen dugu Parlamentu honek eskaini digun elkartasuna. Mundu osoan gure lagunak ematen diguten elkartasuna oso garrantzitsua da guretzat», esan zuen.

Kayak Legebiltzarreko oherko liburuan izenpetu zuen, eta, turkieraz, idatzi zuen bi herrien arteko «anaitasuna» agerian geratu dela. Atutxak Legebiltzarra izan aurretik zen eraikinaren irudia eman

zior opari, eta esan zion etxe hura orain euskaldunon borondatea islatzen den tokia dela. Horrekin batera, animatu zuen kurduak ere laster etxe bat izan dezaten, non Legebiltzarra eraikiko duten.

Askok estimatu zizkion hitzak Kayak, eta oparia egunen batean kurduen Legebiltzarraren «ohoreko tokian» jarriko dutela ziurtatu zion.

Atutxak, bestalde, Madrillgo Gobernuak kurduen afera Auzitegi Konstituzionalean

salatu izana deitoratu zuen. Izan ere, Legebiltzarrak erabaki zuen aretoa kurduei uztea bilera egin zezaten. Erabaki hori ez zen PPko gobernuaren gustukoa izan, eta Auzitegian salatu zuen. Konstituzionalak onartu egin zuen salaketa aztertzea eta bertan behera utzi zuen bilera egiteko ebazpena.

«Errespetatzen ditut auzitegien erabakiak; baina guk baditugu eskuduntzak, eta horren lekuko da Kaya hemen izatea», esan zuen.

Javier del Castillo parlamentarioak egoera larrian jarraitzen du

■ Bigarren ebakuntza egin zioten atzo goizaldean

Europa Press / Iruñea

CDN-KO parlamentario Javier del Castillok egonkor baina larri jarraitzen zuen atzo, goizean bigarren aldiz ebakuntza egin ondoren. Del Castillok auto istripua izan zuen asteazken goizean.

Nafarroako Ospitaleko iturriek jakinarazi dutenez, parlamentario nafarrek hainbat saihestezur hautsita zituen eta gibela, birrikak, pankreak eta duodenoa kalteturik.

Nafarroako gobernuak ohiari bigarren aldiz egin zioten ebakuntza atzo goizaldean. Ziraukin izan zuen auto istripua, goizeko 09:00ak aldera. Bi ordu geroago, Lizarrako Garcia Orkoien ospitaleko operazio gelan sartu zuten, eta han barea kendu zioten. Arratsaldean, Nafarroako Ospitaleko Zaintza Intentsiboko Unitatean sartu zuten, eta han jarraitzen zuen lerrook idazteko garaian.

Ezbeharrak Iruñea eta Logroño lotzen dituen errepidean (N-111) izan zen, 32,5 kilometroan: parlamentarioaren kotxeak beste auto bat jao zuen aurrez aurre. Istripuaren ondorioz, Del Castilloren autoa irauli egin zen eta hura ibilgailuaren pean geratu zen.


Jarrera «irekia» eskatu die Sanzek kontseilariei

■ Gobernuak kideak karguz jabetu ziren atzo

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

NAFARROAKO GOBERNUKO bederatzikontseilariak karguz jabetu ziren atzo, Nafarroako Jauregiko Tronuaren aretoan egin ekitaldian. Bere hitzaldian, Miguel Sanz lehendakariak «jarrera irekia» eta «kudeaketa gardena, garbia, zehatza eta partehartzailea» eskatu zien kontseilariei. Sanzek, halaber, Gobernuaren garrantzia nabarmendu zuen: «Gobernuak erdiko gunean egon behar du, elkargune izan

behar du. Gune estrategikoa da gure erkidegoa kohesionatzeko, eta Nafarroaren garpena eta aurrerapenaren bultzadaren burua izateko». Gobernu berrian aldaketa gutxi daude. Hiru aurpegi berri baino ez: Nuria Iturriagaitia, Jesus Laguna eta Francisco Iribarren hain zuzen ere. Gainontzeko kontseilariak aurreko gobernuak kideak ziren: Rafael Gurrea, Igancio Martinez Alfaro, Calixto Aiesa, Santiago Cervera, Jose Ignacio Palacios eta Javier Markotegi.



Nafarroako Gobernuak kontseilariak, atzoko ekitaldian.